



2012/03/2ko prentsa-oharra

ETXEBIZITZA BEHARREI ETA ESKARIEI BURUZKO INKESTA, 2009

EAEko 18 urtetik 44ra bitarteko biztanleen % 15,8k lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dauka

Jabeen arabera, 142.099 etxebizitza birgaitu beharrean daude, hau da, lehen etxebizitzaren % 16,9

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak kudeatzen duen EAEko etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko 2009ko inkestaren arabera, euskal familien % 6,7k etxebizitzaz aldatzeko beharra dauka –56.700 inguruk–; eta seitik batek baino zertxobait gehiagok, (%16,9k), adierazi du bere etxebizitzak 3.000 eurotik gorako birgaitze-lanen bat behar duela, elementu propioetan.

18 urtetik 44 urtera bitarteko pertsonen kolektiboak lehenengo etxebizitza eskuratzeko, 110.700 etxebizitza behar izango ziren 2009an Euskal Autonomia Erkidego osoa hartuta, hau da, aurreko urtean baino % 48,6 gehiago (ikus oin-oharra). Lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra zenbatek duten kalkulatzeko baldintza gisa diru-sarrerak propioak izatea jarri da.

Bizkaian, 2008tik 2009ra lehen etxebizitzaren eskaria % 70 igo da; Gipuzkoan, % 34,3 eta Araban % 4,4.

Diru-sarrerak dituzten 18 eta 44 urte bitarteko bizkaitarrek 66.400 etxebizitza eskatu dituzte 2009an –2008an baino 27.400 gehiago–; gipuzkoarrek, 32.800 –8.400 gehiago– eta lehenengo etxebizitza behar duten arabarren kopurua aurreko urtekoaren antzekoa da: 11.500, hau da, 500 gehiago.

Lehenengo etxebizitzaren bila dabiltzan hiru eskatzailetatik bi pasatxok gurasoekiko emantzipazioa jarri dute arrazoi gisa –% 71,8–, eta lautatik batek –% 25,2– lehenengo etxebizitza ezkontzeko edo bikotekidearekin bizitzeko bilatzen du.

Oharra: 2009an hainbat aldaketa metodologiko sartu genituen estatistika-eragiketa honetan. Behar indibidualari dagokionean, 18 eta 44 urte bitarteko adina zuten eta guraso edo tutoreekin bizi ziren pertsonen ausazko lagin bat baliatu zen. 2008ra arte, etxebizitzaz aldatzeko eta birgaitzeko beharra neurtzeko erabiltzen zen familia-lagin bera baliatzen zen. Familia-informatzailearen bidez antzematen ziren lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharrak.

1(3)




Lehenengo etxebizitza eskatu dutenetatik % 16,4k alokairua aukeratu du

Lehenengo etxebizitza eskatu duten 18 urtetik 44 urtera bitarteko biztanleen ia % 60k jabetzan eskuratu nahi du; % 16,4k baino ez du alokairua aukeratu, eta % 24,1ek ez du ez sistema bat, ez bestea aukeratu.

Eskatzaileen kolektiborik garrantzitsuena 25 urte eta 34 urte bitartekoa den arren, – %71,4– , ia % 21,7 dira 18 eta 24 urte bitartekoak.

Behar den 1. etxebizitzaren ezaugarriak eta eskatzaileen profila.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 2009. %



(*) % 100era iristeko falta denak "Ez daki/Ez du erantzun" multzokoak dira.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko inkesta.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Etxebizitzaz aldatzeko beharrak % 38,5 egin du gora azken urtean, eta birgaitzekoak, % 10,4.

Etxebizitzaz aldatzeko beharra nabarmen igo da; familien % 6,7k daukate pentsatuta etxebizitza aldatzea, 2008an baino % 38,5 gehiagok. Bestetik, birgaitzeko beharra ere igo egin da: 142.099 etxebizitzaren jabeek adierazi dute etxebizitzak 3.000 eurotik gorako obren beharrean daudela, etxebizitzaren elementu propioei dagokienean; hau da, 2008an baino 13.430 etxebizitza gehiago.

| ETXEBIZITZEN BEHARREI ETA ESKARIARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN | | 2009 | Aldakuntza 2008. urtearen aldean | |
|---|--------------------|---------|----------------------------------|-------|
| | | | GUZTIRA | % |
| Euskal Autonomia Erkidegoa | Sartzea | 110.677 | 36.216 | 48,6 |
| | Aldatzea | 56.652 | 15.758 | 38,5 |
| | Birgaitzea | 142.099 | 13.430 | 10,4 |
| | Etxekoen unitateak | 841.501 | 12.247 | 1,5 |
| Araba | Sartzea | 11.476 | 484 | 4,4 |
| | Aldatzea | 7.676 | 863 | 12,7 |
| | Birgaitzea | 8.174 | -10.057 | -55,2 |
| | Etxekoen unitateak | 123.315 | 4.483 | 3,8 |
| Bizkaia | Sartzea | 66.418 | 27.366 | 70,1 |
| | Aldatzea | 37.936 | 16.222 | 74,7 |
| | Birgaitzea | 91.995 | 20.451 | 28,6 |
| | Etxekoen unitateak | 448.556 | 3.359 | 0,8 |
| Gipuzkoa | Sartzea | 32.783 | 8.366 | 34,3 |
| | Aldatzea | 11.040 | -1.327 | -10,7 |
| | Birgaitzea | 41.930 | 3.037 | 7,8 |
| | Etxekoen unitateak | 269.630 | 4.405 | 1,7 |

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitza beharrei eta eskariei buruzko inkesta.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Organo Estatistikoa

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEAK: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.